

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

600

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 21koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria-rena, kanpoko euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka esleitzen dituen.

Uztailaren 26ko 172/2011 Dekretuaren bitartez, kanpoko euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka arautu ziren. Dekretu hori gerora aldatu egin zen beka iraupe-nari dagokionez, martxoaren 18ko 36/2014 Dekretuaren bidez.

Uztailaren 26ko 172/2011 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak 2017ko azaroaren 6ko Ebazpena eman zuen kanpoko euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko lau beka deialdia egiteko.

Uztailaren 26ko 172/2011 Dekretuaren 6. artikuluan adierazitako hautaketa-batzordeak, deialdia egiten duen ebazpenean izendatu ziren kideek osatuta, esleipen-proposamena egin du, dekretu horren 9. eta 10. artikuluei jarraikiz.

Hori guztia ikusita, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zehaztutako pertsonak aurkeztutako eskabideak ez onartzea beka horiek emateko hautaketa-prozesuan parte hartzeko, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean jasotako pertsonari esleitzea kanpoko euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka.

Hirugarrena.– III. eranskinean zehaztutako pertsonari beka ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Laugarrena.– IV. eranskinean jasotako pertsonak ordezkari izendatzea.

Bosgarrena.– Bekadun guztiek 2018ko urtarrilaren 15ean ekingo diote bekaldiri.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 21a.

Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendaria,
GORKA ALVAREZ ARAMBURU.

2018ko otsailaren 2a, ostirala

I. ERANSKINA

Onartu gabeko eskaeren zerrenda

Abizenak eta izena	Arrazoiak
Agirre Aranguren, Iraitz	172/2011 Dekretuaren 3.1.c) artikulua ez betetzea (gehienezko adina baino handiagoa izateagatik)
Azkorra Camargo, Amaia	172/2011 Dekretuaren 4.1 artikulua ez betetzea (eskabidea epez kanpo aurkezteagatik)
Garmendia Barrenetxea, Jon	172/2011 Dekretuaren 3 d) artikulua ez betetzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik edo antzekorik eskuratu ez izana aurretik)
Heras Navas, Susana	172/2011 Dekretuaren 3.1.c) artikulua ez betetzea (gehienezko adina baino handiagoa izateagatik)
Marina Rivero, Teresa	172/2011 Dekretuaren 3 d) artikulua ez betetzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik edo antzekorik eskuratu ez izana aurretik)
Peñafiel Ibarra, Sofía	172/2011 Dekretuaren 3 d) artikulua ez betetzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik edo antzekorik eskuratu ez izana aurretik)
Sainz Echevarría, Elixabet	172/2011 Dekretuaren 3 d) artikulua ez betetzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik edo antzekorik eskuratu ez izana aurretik)

Uko egin duten eskatzaileen zerrenda

Abizenak eta izena
De la Quintana Bueno, Susana
Montes Nebreda, Andoni
Moraza Erausquin, Joanna

2018ko otsailaren 2a, ostirala

II. ERANSKINA

BEKEN ESLEIPENDUNEN ZERRENDA

Abizenak era izena	Destinoa
Medina Gracia, Iñigo	Estatu Batuak
Oreja Garralda, Nerea	Argentina
Arrazola Vallejo, Itziar	Vitoria-Gasteiz
Querejeta Agirre, Izaskun	Vitoria-Gasteiz

2018ko otsailaren 2a, ostirala

III. ERANSKINA

Kanpoan geratu diren pertsonen zerrenda, gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik

Abizenak eta izena
Bastida Irigoyen, Itsaso
Marquez Rodriguez, María de la Cinta
Furundarena Mugarra, Ondiz
Ramírez de la Piscina Armendariz, Jon
Ateca, Jesica Alejandra

2018ko otsailaren 2a, ostirala

IV. ERANSKINA

Ordezko pertsonen zerrenda

Abizenak eta izena
Herrero Canales, Ander